

Gure idea negozioa bizikleta estatiko batzuk azken bagoian jartzea da, metroarekin konektatuta, bizikletak erabiltzean energia sortuko litzateke eta sortutako energiak metroa gidatzeko balio luke, gainera funtzio berdina egiten duen beste gailu bat jarriko dugu, eskuko pedalak, hankekin arazoak dituzten pertsonak, ere erabiltzeko aukera berdina izateko.

Gure ideia 3 behar edo arazo konpontzen ditu. Jendeari laguntzen du haren osasunean, ariketa fisikoa eginez, ariketa fisikoa egiten duzun bitartean energia sortzen zaude eta zenbat eta energia gehiago sortzen duzun, bidaiaren kostua murrizten da.

Jendeari lagundu haren osasunean. Askoan, denbora faltagatik edo errutina berri bat hasteko nagikeriagatik, jendeak ez du kirola eta ariketa fisikoa egiten. Gure ideiarekin; langileak, ikasleak... garraio publikoaren egunero erabiltzen dutenak (metroa, kasu honetan) ez dute aitzakiarik izango egunero ariketa pixka bat egiteko gure eskaintzarekin.

Energia sortu. Gaur egun energia oso garestia da, gure idearen beste faktore garrantzitsu bat, ariketa fisikoa egiten duzun bitartean energia sortzen zabilzala. Faktore hori ez dauka eraginik gure bezeroetan eta haiek saritzeko egingo duguna...

... Bidaiaren kostua murriztea da. Zenbat eta denbora gehiago pedaleatzen eta energia gehiago sortzen duten deskontuak egingo dizkiegu metroaren txartelan. Hau guztia aurrera eramateko *Metro Bilbao* enpresarekin haien alboan lan egingo dugu.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure bezeroa, "Metro Bilbao"ko empresa da. Gu ordaintzeko prest egongo dira faktore desberdinengatik:

-Balio kuantitatiboa: haiekin lan egingo dugunez, prezioa negoziagarria izan daiteke. Baina hasiera baterako hauek izango dira gure prezioak.

-Balio kualitatiboa: diseinua simplea da baina bizikleta estatiko batzuk metroaren barruan ikustea ez da gauza normal bat, beraz zerbait berritzailea da.

-Segurtasuna: Beti segurtasuna izango dute, gu bertan haiekin egongo garelako. Konponketak eta lekualdaketak doain egingo dizkiegu.